

Lehen Hezkuntzako ikasleen segurtasun digitala

Eskaerak eta konpromisoak
#IZANDIG proiektuaren baitan



Amaia Arroyo Sagasta
HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea



Rakel Gamito Gomez
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)



Sarrera

Eguno haur eta nerabeen aisialdi gune nagusietako bat Internet da, egunero eta ia denbora guztian konektatuta daudelako (INE, 2020), berdinekin sozializatzeko, musika entzuteko, jolasteko...

Kalkulatzen da 9 eta 16 urte bitartean, egunero, batazbestez, 180 minutu konektatuta pasatzen dituztela (Smahel et al., 2020).

Adin txikikoek gehien jasaten dituzten online arriskuak ziberjazarpena, ezezagunekin kontaktua eta eduki ezegokietara sarbidea dira (Gamito, 2019).

Pribatutasuna eta segurtasuna ez zaintzeak nerabeen harremanetan, nortasunean eta ongizate fisiko zein autopertzepzioan eta autoestimuan ondorio negatiboak izan ditzake (Bilgrami et al. 2017).

Beraz, beharrezkoa da biztanleria talde gazteenari online ohitura osasungarriak eta kritikoak garatzeko esku-hartze hezitzaileak eskaintzea (Argente et al., 2017; Garmendia et al., 2016).



Helburuak

Prebentzio-neurrien beharraz kontzientzia piztea eta lanketa horretan hezkuntza-eragile guztiek (adin txikikoek, eskolak eta familiak) duten papera azpimarratzea.

Horretarako:

- Adin txikikoek eskaerak aztertzea.
- Adin txikikoek konpromisoak identifikatzea.
- Proiektua baloratzea.

Arrakastatsua:

gaitasun digitalaren ikuspegi kritikoa garatzeko aukera.

Balorazioa



Etorkizunerako norabidea

Haur eta gazteen online erabilera-ohiturak sakondu, sortzen zaizkien zalantzen jakitun izateko eta hezkuntza-komunitate osoaren kontzientzia kritikoa pizteko hezkuntza-praktikak diseinatzeko.


Erreferentziak



- Argente, E., Vivancos E. P., Alemany, J., eta García, A. (2017): Educando en privacidad en el uso de las redes sociales. *Education in the knowledge society (EKS)*, 18(2), 107-126. <https://doi.org/10.14201/eks2017182107126>
- Bilgrami, Z., McLaughlin, L., Milanaik, R., eta Adesman, A. (2017): Health implications of new-age technologies: a systematic review. *Minerva pediatrica*, 69(4), 348-367. <https://doi.org/10.23736/S0026-4946.17.04937-4>
- Gamito, R. (2019): *Adin txikikoek Interneten erabilerari eta arriskuei buruzko kasu azterketa bat. Pertzepzioetik kontzientzia piztera* [Doktorre-tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). <https://www.rakelgamito.eus/tesia/>
- Garmendia, M., Jiménez, E., Casado, M. A., eta Mascheroni, G. (2016): *Net Children Go Mobile: Riesgos y oportunidades en internet y el uso de dispositivos móviles entre menores españoles (2010-2015)*. Red.es/ Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). <https://netchildrengomobile.eu/ngcm/wp-content/.../Net-Children-Go-Mobile-Spain.pdf>
- INE, Instituto Nacional de Estadística (2020): Encuesta sobre Equipamiento y Uso de Tecnologías de Información y Comunicación en los hogares 2020 - Uso de ordenador, Internet y móvil por sexo, edad, hábitat, tamaño del hogar, tipo de hogar e ingresos mensuales netos del hogar. <https://labur.eus/UoPtU>
- Smahel, D., Machackova, H., Mascheroni, G., Dedkova, L., Staksrud, E., Ólafsson, K., Livingstone, S., eta Hasebrink, U. (2020): *EU Kids Online 2020: Survey results from 19 countries. EU Kids Online*. Londres: LSE. <https://doi.org/10.21953/lse.47fdeqj010fo>

#IzanDig PROIEKTUA:

- **Helburua:** adin txikikoek online bizikidetzara eta Interneten erabilera osasuntsua jorratzeko lanketa espazioak eskaintzea.
- **Edukiak:** Interneteko arriskuak eta horien aurrean izan beharreko jarrera kritikoa, pribatutasuna zaintzearen garrantzia, besteen onarpenaren garrantzia (like edo atsegiteak) eta ezarpen teknikoaren konfigurazioa pribatutasuna zaintzeko.
- **Noiz:** 2018/19 eta 2019/20 ikasturteak.
- **Norekin:** 23 ikastetxeetako 1779 ikaslerekin.
- **Antolaketa:**



IKERKETA:

Diseinua	Parte-hartzaileak	Tresnak	Prozedura	Analisia
Kasu-azterketa kualitatiboa	7 ikastetxeetako 384 ikasle	Behaketa, ohar pertsonalak eta 4. foroan egindako ekoizpenak	Proiektuaren baitako 3 topaketa	Kategoria-sistema



Emaitzak eta ondorioak

- **Gurasoei zuzendutako gomendioak eta eskaerak:**
 - Umeak babestu eta lagundu (% 41.7): informazioa, arauak...
 - Prebentzio-jarraibideak kontuan izan (% 36.1): pasahitz seguruak erabiltzea, sare sozialetan informazio pertsonalik ez ematea...
 - Telefono mugikorrari arreta gutxiago eskaintzea (% 22.2): bizitzaz eta familia giroaz gehiago disfrutatu.

"Gurekin daudenean, utzi mugikorra, garrantzitsua ez bada" (2019-06, 4. taldea)

• Irakasleei zuzendutako gomendioak eta eskaerak:

- Eskolako gailuen segurtasuna babestu (% 55.6): datu pertsonalak zaindu.
- Umeei segurtasun digitalari buruzko formazioa eskaini (% 25).

"Umeentzako tailerrak egin, sare sozialei buruzkoak" (2019-06, 1. taldea)

• Ikasleek hartutako konpromisoak:

- Pribatutasun pertsonala zaindu (% 38.9): sare sozialen ezarpenak modu egokian konfiguratu eta datu pertsonalik ez eman.
- Besteekiko errespetua izan (% 27.8): besteen irudia babestu.

"Sare sozialetan kontu pribatuak izango ditut" (2019-06, 2. taldea)